


Beñat Sarasola

♦ IDAZLEA



Egan-en itzuleraren alde

AITOR DUT, ni ere Eganen hainbat kasete edukitakoa naiz. Buruz ari naiz –duela urte batzuk libratu bainintzen haiez–, baina esango nuke gutxienez *Egan* eta *Erromerian* eduki izan nituela. Txikitan halakoak entzuten nituen euskaraz Negu Gorriak eta gainontzekoak ailegatu zitzaizkidan arte; orduan etorri zen Egan-ekiko erdeinua. Boladak izaten dira, badakizue; nagusitu ahala iraganeko etapak despreziatu behar.

Bolada oro itzultzen da gutxien espero duzunean, ordea. Eta halaxe gertatu zait berriki lagun bati esker Egan eta Ariel Pink-en antzekotasunaz jabetu nintzenean. Berehala pentsatu nuen: Ariel Pinki alabantzak eta Egani ordea destaina. #Doblerasero. Musikalki bata eta bestearen arteko distantzia ez denez alimalekoa, Pinken arrakasta aprobetxatuz promozio eta komunikazio kanpaina egoki batek Egan *revival* gogoangarri bilaka dezakeela bururatu zait. Duela bi urteko Alaitz eta Maiderren itzuleraren aldeko kanpaina ustelaren ostean, bada, Eganen aldekoa sustatu nahiko nuke aurten.

Izan ere, ongi pentsatuta, Eganek arrakastaren uberara itzultzeko osagai guztiak ditu. Esan bezala, historiaren jira eta birek beren ekoizpen eta konpoketa, nola esan, pastosoak, modan ipini dituzte atzera. Bestalde, inor gutxi izan da gauza euskal musikan Eganeko gitarren tamainako soloak (entzun *Zeren maite zaitut*) egiteko. Brian May harro sentitzeko modukoak, alajaina. Zer esanik ez koroak, teklatu espazial eta baxujo-tzailearen slap estratosferikoak. Tradizioa eta abangoardiaren uztartzaila nekaezin, beti egon izan dira berritasunerako gertu: “DJak plazan sartu dira, eta jendeari bost inporta zaio zeinek jotzen duen edo zein musika tresna dauden; jartzen

duen giroak bakarrik axola du. Itxuraz arreta handiagoa jartzen zaie dantzariari eta ikuskizunari, musika jotzeari baino. Horregatik, joera hori ikusita, formatua aldatu dugu”. Hausnarketa hartatik etorri ziren taula gaineko *basque-gogó* moduko haiek.

Eklektizismo garaioan, estilo ugaritan moldatzeko gaitasuna, gainera, aski akreditatua dute. Gehienak bertsioak direla? Baita *Sarri Sarri* ere eta inor ez da kexatzen horregatik. Batzuk *truñotzar* galantak direla? Etxe onenetan jazotzen da. Baina hor daude hit ezin ukatuzkoak orobat: *Lo ez Mexicon* ahaztezina, *Gau ilunaren* groovea, *Denok dantzara*-ren letratzarra (Aizkolaria nahi nun izan / baina ez neukan nahiko indar), *Ikuskizunak jarraitu behar du* paregabea, non *Show Must Go On!* sonatua *Zu maisu on!* bihurtzen baita.

Alabaina, ezeren gainetik zerbait nabarmentzekotan *frontmana* aipatu beharko genuke zalantza izpirik gabe: Xabier Saldias, Urolako tigrea.

Haren eszenatokiaren, espektakuluaren, meneratzea, ezta Michael Jacksonek haren garai onenetan.

Tamalez, jakingo duzuenek, musika taldeetako ohiko barne-istiluak medio, bitan banatu zen Egan duela pare bat hamarkada: Trabuko (sic) eta Egan Berria. Uste dut bada- la unea, bizi ditugun garai berri bezain itxaropentsuak lagun, behialako ika-mikak alde batera utzi eta bigarren aukera batekin saiatzeko. Ez zait bururatzen gure bake prozesurako Egan baino soinu banda ego-kiagorik. Seguru Gorka Maneioren bihotz gotortua ere beratzeko gai dela.

Noizbait entzun izan dudanez, BBK Live jaialdia dirutza bat ordaintzeko prest egon izan da Hertzainak-en itzulerara lortzeko. Ez dugu ezer Hertzainaken kontra, jakina, baina Euscool Herriak jakin nahi duena zera da: zenbat jartzeko prest zaudete Eganen itzuleraren alde? ■



Antton Olariaga

